

# ZUMAIAKO ITZURUN ETA SANTIAGO HONDARTZAN URETAKO KIROL JARDUERAK EGITEKO ARAUAK (2023)

## 1.- SARRERA

Azken bi hamarkadetan izugarri hazi da surfa eta bodyboarda egiteko ohitura, batez ere, uda garaian. Horren ondorioz, gaur-gaurkoz aukera ekonomiko eta turistiko bihurtu da kirol modalitate hori. Azken urteetan sortu diren egoerak aztertu ondoren, sektore hori arautzeko erabakia hartu du Zumaiako Udalak. Horrenbestez, araudi bat onartu du helburu ekonomikoak dituzten ur-kiroletako zonak erabiltzeko.

Honako puntu hauek eduki dira kontuan araudi hori egiteko:

- a) Itsasoa guztiok erabiltzeko ondasun bat da.
- b) Zumaiako hondartzatan gero eta eskola eta profesional gehiago ari dira surfeko, bodyboardeko edota SUP ikastaroak ematen (aurrerantzean, enpresak).
- c) Udan bainulari eta ur-kiroletako zale asko joaten dira Zumaiako hondartzatara.
- d) Udalak, kantitatearen alde baino, kalitatearen aldeko apustua egin du. Horrek esan nahi du enpresak sailkatu egin behar direla, ikasleen esku jartzen dituzten bitarteko materialen eta giza baliabideen arabera.
- e) Beharrezkoa da zerbitzu horien erabiltzaileen eta hondartzako gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatzea.
- f) Beharrezkoa da, baita ere, arau-hausteak ikuskatu eta zigortzeko sistema bat jartzea.

## 2.- EREMUEN ETA IKASTAROEN ANTOLAMENDUA

Zumaiako bi hondartzan zabalera eta egitura kontuan hartuta, jarduerak eskainiko dituzten enpresak mugatu behar direla ondorioztatu da goian azaldutako puntu guztiak bete nahi badira. Hau horrela, beren jarduera hondartzan emateko mugak jarri dira. Aurkezten diren eskolen txostenak aztertu ondoren hurrenkera bat egingo da eta puntuazio altuena lortzen duten hirurek izango dute jarduera egiteko aukera.

## 2.A) EREMUIEN ANTOLAMENDUA

### ITZURUN

Hondartzako zaintza eta sorosle zerbitzuaz arduratzen diren pertsonak mugatuko dituzte surf-zonak banderekin. Banderak itsasoaren egoeraren arabera jartzen dira; beraz, lekuz alda ditzakete, egokia iruditzen baldin bazaie. Dena den, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, hiru eremu jarriko dira, orientagarri gisa, ur-kirolak praktikatzeko:

- Santelmoaldea 1 (ezker aldean)
- Santelmoaldea 2 (ezker aldean)
- Itzuruntxikialdea (eskuin aldean)

Eremu bakoitzean orduko gehienezko ikasle kopuru bat jarri da, kontuan hartuta hondartzaren ezaugarriak eta bertan izaten den jende kopurua. Ikastaroetan parte hartzen dutenak kolore bereko likrarekin identifikatuko dira.

EREMUA	ORDUA1	KOP.	ORDUA2	KOP.
Santelmoaldea 1	08:00-10:30	10	10:30-...	6
Santelmoaldea 2	08:00-10:30	10	10:30-...	6
Itzuruntxikialdea	08:00-10:30	10	10:30-...	6

## 2.B) IKASTAROEN ANTOLAMENDUA.

Hainbat urtetan Foru Aldundiaren Uda Kanpainaren barnean, surf eta bodyboardeko ikastaroak eman ditu Udalak. Asmo honekin jarraitzeko egunean bi orduko (09:00-11:00) erreserba izango da hastapen jardura hauek aurrera eramateko. Udalak eskaintza hau ez badu egiten, Santiagoko hondartzan jarduerak ematen dituenari emango zaio lehenik aukera eta ondoren 3. postuan gelditzen den enpresari emango zaio aukera.

Hurrenkeraren arabera 2. eranskinean zehaztutako taula beteko da eta bertan sailkapenaren arabera eremua eta jardura orduak zehaztuko dira.

### SANTIAGO

Hondartzako zaintza eta sorosle zerbitzuaz arduratzen diren pertsonak mugatuko dituzte surf-zonak banderekin. Banderak itsasoaren egoeraren arabera jartzen dira; beraz, lekuz alda ditzakete, egokia iruditzen baldin bazaie. Dena den, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, eremu bat jarriko da, orientagarri gisa, ur-kirolak praktikatzeko:

- Ibai aldea.

Eremu bakoitzean orduko gehienezko ikasle kopuru bat jarri da, kontuan hartuta hondartzaren ezaugarriak eta bertan izaten den jende kopurua. Ikastaroetan parte hartzen dutenak kolore bereko likrarekin identifikatuko dira.

EREMUA	ORDUA1	KOP.	ORDUA2	KOP.
Errepide alde/Ibai alde	08:00-10:30	10	10:30-...	10

### 3.- ESKAERAK

Eskaerak maiatzaren 31a baina lehen aurkeztu beharko dira Zumaiako Kirol Patronatuko erregistro orokorrean (Basadi auzategia 16) aurkeztuko dira eskaerak eta eskaera orriarekin batera jarraian azaltzen diren agiri eta dosierrak.

#### 3.A) AGIRI ADMINISTRATIBOAK.

Araututako denboraldian baldintza hauek bete beharko dituzte enpresek Zumaiako Itzurun eta Santiago hondartzan beren jarduera egin ahal izateko:

1. "Surf eskola" edo "txikizkako merkataritza" jarduerarako Zumaiako Udalak emandako irekitze-lizentzia edo egiaztatze formala edukiko dute lokalek.
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egongo dira Zumaian, dagokion epigrafean
3. Euskadin ondasunak merkaturatzen dituzten edo zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek (saltokiak, tabernak eta jatetxeak...), baita zerbitzuak etxez etxe eskaintzen dituztenak ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen esku nahitaez eduki behar dituzten erreklamazio-orriak eduki beharko dituzte.
4. Beteta edukiko ditu surf-ikastaroak antolatzearen ondorioz sortutako betebeharrak (lanekoak, fiskalak eta zergenak). Izan ere, indarrean dagoen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera, tasa edo zerga batzuk ordaindu behar dira ikastaro horiek antolatzeko. Beraz, horiek ordainduta edo likidatuta dituela frogatzeko ziurtagiriak aurkeztuko ditu enpresak. Horiekin batera, laneko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen dituzten langileen kontratuak eta 10T ziurtagiriak.
5. Ikastaroak emango dituzten monitoreek, indarrean dagoen legediaren arabera zehaztutako surfeko titulua izan beharko dute.
6. Ikastaroak emango dituzten monitoreek natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.

Ziurtagiri hau, indarrean dagoen urteko urtarrilaren 1a baino beranduagoko datarekin izan beharko du.

<https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/eu/tramites/certificado-registro-central>

7. Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza bat sinatuta edukiko du, gutxienez, 600.000 eurokoa. Hartzaille modura, berriz, erakunde antolatzailea azalduko da.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean, ordaindutako polizaren eta ordainagiriaren kopia ere sartuko da.

**Ziurtagiriak ez badira aurkezten eta, hautagaiak ez badu uko egiten espreski, patronatua arduratuko da eskatzeaz.**

### **3.B) Puntuatzeko irizpideak**

Enpresak antolatzen duen jardueraren nondik norakoak azaldu beharko ditu atal honetan eta hiru bloketan sailkatuko da: Instalazioak eta bitarteko materialak, Ikastaroen metodologia eta Giza Baliabideak.

Garrantzitsua da jarduera azaltzerakoan ze hondartzatan egin nahi den jarduera zehaztea. Bi hondartzatarako jarduera baimena ezingo da eskatu.

Hauek dira puntuatzeko irizpideak (1. eranskina):

1. Instalazio eta bitarteko materialak:
  - a. Zumaiian Surf Eskolaren lizentzia edo aurre-komunikazioa duen lokal jakin bat izatea, edo lokal bat edukitzea eta, bertan, surfeko txikizkako beste jarduera batekin partekatzea jarduera (esaterako, denda bat, eta bertan, Surf ikastaroetarako espazio bat aparte). Lizentzia bat baloratuko da.

Jarduera Santiagoko hondartzan egiteko eskaria egiten duen enpresak, hondartzan kaxeta bat kokatu beharko du (gehienez 20 metro karratu okupatuko ditu). Inguruan lokala komertzial edo zerbitzurik ez dagoenez elementu hau instalakuntza bezala balioztatuko da eta honetarako dagozkion baimen eta lizentziak aurkeztu beharko ditu. Kaxeta hau inguruarekin bat etorri beharko da.
  - b. Instalazioak bi sarbide edukitzea. Sarbideetako bat gune hezera eta aldageletara sartzeko izango litzateke; gune heze horretan surf-oholak, jantziak, likrak eta ikastaroetan erabilitako gainerako materiala biltegitatzeko gune bat egongo da (horretarako bakterioen aurkako substantziak eta desinfektatzaileak erabiliko dira). Beste sarbidea gune lehorra sartzeko izango da.
  - c. Erabilera desberdinetarako gutxienez 12 m<sup>2</sup>-ko gune lehor bat egotea.
  - d. Gizonezkoentzat aldagela bat egotea eta beste bat emakumezkoentzat.
  - e. Aldagela mistoak egotea.
  - f. Erabiltzaileentzat edozein material gordetzeko armairuak egotea.
  - g. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako komun irisgarria egotea.

- h. Hasierarako oholak eta aurreragorako oholak edukitzea, baita ohol bigunak ere. Gutxienez 5 unitate.
  - i. Jantzi hauek edukitzea:
    - Negukoak: Neopreno luzeak, eskarpinak, eskularruak, txanoak. Gutxienez 5 unitate.
    - Udakoak: Neopreno laburrak, likrak. Gutxienez 5 unitate.
2. Ikastaroen metodologia:

Ikastaroen eskaintza zein den erakusteko baldintzak argitaratuko dira, bai tarifen kartelean, bai idatzizko publikitatea eginez, edo, baita ere, webgune, sare sozial eta abarren bitartez. Dokumentu hori ikusteko moduko tokian jarrita egon beharko da, bezero guztien eskura.

- a) Ikastaroen nondik norakoak esplikatu dituen azalpen orriak.
- b) Udalditik kanpoko ikastaroak eskaintzea. Dagokion epigrafean gutxienez sei hilabetean zehar alta emanda egon beharko dira.
- c) Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako ikastaroak eskaintzea.
- d) Ikastaroak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea (euskaraz eta gaztelaniaz).
- e) Ikastaroak beste hizkuntza batzuetan eskaintzea.

3. Giza baliabideak:

- a. Honako baldintza hauek betetzen dituen monitore-kopurua: Eusko Jaurlaritzako Kirolaren Euskal Eskolak ematen duen 1 mailako Surf Entrenatzaile tituluaren jabe izatea (Surf modalitatean) Gehienez ere 4 kontratu balioztatuko dira. (3. eranskina)
- b. Honako ikasketak dituen monitore-kopurua edo administrari-kopurua: Euskarako EGA tituluak, DBH, batxilergo edo lanbide heziketako ikasketak euskaraz (D ereduan) eta/edo Unibertsitateko ikasketak euskaraz izatea. Gehienez ere 4 titulu balioztatuko dira.
- c. Beste hizkuntza batzuk dakizkien monitore-kopurua edo administrari-kopurua: frantsesa, ingelesa... First certificate maila edo baliokidea (Europako Markoko B2 gutxienez). Gehienez ere 4 titulu balioztatuko dira.
- d. Jarduerarekin zerikusia daukaten administrari edo laguntzaileak. Gehienez ere 4 kontratu balioztatuko dira.
- e. Ur-sorosle titulu duen monitore-kopurua. Gehienez ere 4 kontratu balioztatuko dira.

4. Lan baldintzak:

- a. Enpresako langileen lan baldintzak bermatzeko gutxienez Gipuzkoako Ikuskizun eta kirol lokalak hitzarmen kolektiboa betetzea: Hau justifikatzeko aurrez zinpeko ziurtagiri baten bidez ziurtatuko da.

- b. Denboraldian zehar Kirol Patronatuak hau betetzen dela ziurtatzeko behar diren agiriak eskatzeko aukera izango du.

#### **4.- DATUEN BITARTEKOTZAKO PLAFORMATIK ZERBITZUAK ESKATZEA (NISAE)**

Zumaiako Kirol Patronatuak datuen bitartekotzako Nisae plataformatik honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako zerbitzuak eskaini ahal izateko, baldin eta interesdunak berariaz aurka egiten ez badio horiek erabiltzeari; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

#### **5.- ESPAZIOEN ERRESERBA**

Espazioen erreserba "ur espazio" gisa ulertzen da. Alegia, erreserba horrek ez du, inondik ere, eskubidea ematen espazio publikoan, hondartzan edota jarduera gauzaten den lokalaren aurrean beste inolako okupaziorik egiteko.

#### **6.- KANONA**

Kanon gisara, lizentzia jasotzen duten enpresek Gipuzkoako Kosta Zerbitzuak Udalari kobratutako tasa ordaindu beharko dute.

Tasa Udalari kobratuko zaio eta ondoren honek enpresa bakoitzari dagokion erreziboa jaulkiko dio.

Gipuzkoako Kosta Zerbitzuak lizentzia jaso duenaren jarduera baten ondorioz Udalari edonolako izuna jarriko balio, hau ere enpresari jaulkiko dio.

#### **7.- IKUSKAPEN SISTEMA**

Zumaiako Udalak berari egokiak iruditzen zaizkion bitartekoak jarriko ditu, arauak betetzen direla eta jarduerak ondo funtzionatzen duela bermatzeko.

#### **8.- MEMORIA**

Esleitzailleak suertatzen diren enpresak denboraldia amaitzean jardueraren memoria bat aurkeztu beharko dute Zumaiako Kirol Patronatuan urriaren 15a baino lehen. Memoria horretan jardueraren benetako nondik norakoaz gain memoria ekonomiko bat ere aurkeztu beharko dute.

## 9.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Zumaiako hondartzen erabilera eta aprobeitxamendua arautzeko ordenantzan adierazitakoak izango dira arau-hausteak, eta ordenantza horretan aurreikusitakoaren arabera zigortuko dira.

Hauetz gain, eta ordenantzan zehaztutako neurri eta izaera berdina izanik, jarduerari dagozkion arau hauste berezi hauek horrela arautuko dira:

- Arau hauste arina.
  - Arau hauste arinak dira hauek arautegian edo dagokion ordenantzan dauden xedapenak ez betetzea, baldin eta larriak edo oso larriak ez badira.
- Arau hauste larria.
  - Hutsegite arinak behin eta berriz egitea, preskribatzeko ezarritako epea baino lehen.
  - Enpresako likra jantzita ez izatea.
  - Behar baino ikasle gehiago izatea saio bakoitzean.
  - Behar den eremuan ez egitea jarduera.
  - Iraskasle edo monitoreen utzikeriagatik ikasleak edo beste erabiltzaileak arriskuan jartzea.
- Arau hauste oso larria.
  - Bi arau hauste larri izatea.

Ordenantzan zehaztutako ondorioz gain, espediente bat zabalik izatearen ondorioz lizentzia galdu duen enpresak ezin izango du hurrengo urtean jarduerak egiteko eskaera egin.

**ZUMAIAKO KIROL PATRONATUA/ PATRONATO DE DEPORTES DE ZUMAIA**  
**URETAKO KIROL JARDUERAK EGITEKO ESKAERA**  
 SOLICITUD PARA REALIZAR ACTIVIDADES ACUATICAS EN LA PLAYA

Hondartza/ playa:

**1.-NORBERAREN DATUAK/ DATOS PERSONALES**

<b>Izen-abizenak</b> / Nombre y apellidos		
<b>NAN</b> /DNI	<b>Jaiotze data</b> / Fecha de nacimiento	<b>Sexua</b> / Sexo <input type="checkbox"/> E/M <input type="checkbox"/> G/ H <input type="checkbox"/> Ez bitarra /No binario
<b>Helbidea</b> / Domicilio		<b>Herria</b> / Población
		<b>P.K./C.P.</b>
<b>Probintzia</b> / Provincia	<b>Telefonoa</b> /Teléfono	<b>E-posta</b> / E-mail

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:**

DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN A ESTA SOLICITUD:

- "Surf eskola" edo "txikizkako merkataritza" jarduerarako irekitze lizentzia.** / Licencia de apertura de "Escuela de surf" o "actividades comercial minorista"
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen agiria.** /Documento de alta en el epígrafe correspondiente en el Impuesto de Actividades Económicas
- Zerga betebeharren ziurtagiriak** /Certificado de estar al corriente de impuestos.
- Monitoreen tituluak** / Titulación de los monitores.
- Natura sexualeko delituengatik aurrekari penalak ez izatea.** / Certificado de no tener antecedentes por delitos sexuales.
- Erantzukizun Zibileko aseguru poliza eta ordainagiria.** /Póliza de responsabilidad civil y comprobante de pago.
- Puntuagarri diren irizpideen memoria** / Memoria descriptiva de los puntos a puntuar.



BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK	SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS
<b>Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaiako Kirol Patronatua baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.</b>	<b>Se informa al solicitante, que el Patronato de Deportes de Zumaia va a verificar los requisitos desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. El solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Justizia Ministerioa- Natura sexualeko delituen inguruko kontsulta</li> <li>• Foru Ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta</li> <li>• Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Consulta al Ministerio de Justicia en relación a los Delitos de Naturaleza Sexual.</li> <li>• Haciendas Forales - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias</li> <li>• Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> Me opongo, y aporto la documentación requerida.</p>

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagokion deialdi publikoan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

El abajo firmante SOLICITA ser aceptado en las pruebas de selección correspondientes a la presente instancia y DECLARA que los datos que hace constar en la misma son verídicos y que cumple todas las condiciones especificadas en las bases, así como que, cuando le sea solicitado, presentará las correspondientes originales.

**Zumaian, 20....ko.....ren.....an/**  
 Zumaia, a.....de.....de 20.....

**Sinadura/ Firma**

## 1. ERANSKINA: PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK

	AZALPENA	PUNTUAK	
<b>INSTALAZIOAK ETA MATERIALAK</b>	Zumaiian lokal espezifiko bat du, surf eskola irekitzeko lizentziarekin.		30
	Surf denda batekin lokal bat partekatzen du.		20
	Instalazioak bi sarrera ditu, lehenengoa zona bustira sartzeko (surferako taula eta arropa dagoen tokia) eta bestea zona lehorrera sartzekoa.		5
	Gutxienez 12 m-ko eremu lehorra du erabilera ezberdinetarako.		5
	Emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat aldagelak ditu.		10
	Aldagela mistoa du.		5
	Arropa eta norbere gauzetarako armairuak ditu.		2
	Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat komuna du.		8
	Hastapen eta hasitakoentzat taulak ditu. 5 gutxienez.		2
	Negurako jantziak ditu. 5 gutxienez.		2
	Udarako jantziak ditu. 5 gutxienez.		2
<b>IKASTAROEN METODOLOGIA</b>	Denboraldiz kanpo jarduera eskaintzen du. 6 hilabetez izena emanda egongo da dagokion epigrafean.		6
	Dibertsitate funtzionala duten pertsonekin ikastaroak egiteko aukera.		4
	Ikastaroak hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) egiteko aukera.		6
	Ikastaroak hizkuntza desberdinetan egiteko aukera.		2
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	Monitoreek lehen mailako surf entrenatzaile titulua dute. Gehienez 4 kontratu balioztatuko dira.	2	8
	Administrari langilea izatea eskolak sortzen dituen lanetarako. Gehienez 4	0,5	2
	Administrari edo monitoreak EGA titulua dute, edota ikasketak D eremuan (euskaraz) egin dituzte. Gehienez 4 titulu balioztatuko dira.	0,5	2
	Administrari edo monitoreak atzerriko hizkuntzetan (frantsesa, ingelesa). "First" maila edo baliokideak (B2). Gehienez 4 titulu balioztatuko dira.	0,25	1
	Uretako sorosle titulua egunean duten monitoreak. Gehienez 4 kontratu balioztatuko dira.	0,25	10
<b>LAN BALDINTZAK</b>	Gipuzkoako Ikuskizun eta kirol lokalak hitzarmen kolektiboa betetzea		10

## 2. ERANSKINA: EREMUAK ETA ORDUTEGIAK

### ITZURUN

HURRENKERA	EREMUA	ORDUA
<b>LEHENA</b>	<input type="checkbox"/> Santelmoaldea 1 <input type="checkbox"/> Santelmoaldea 2 <input type="checkbox"/> Itzuruntxialdea	08:00etatik aurrera
<b>BIGARRENA</b>	<input type="checkbox"/> Santelmoaldea 1 <input type="checkbox"/> Santelmoaldea 2 <input type="checkbox"/> Itzuruntxialdea	08:00etatik aurrera
<b>HIRUGARRENA</b>	<input type="checkbox"/> Santelmoaldea 1 <input type="checkbox"/> Santelmoaldea 2 <input type="checkbox"/> Itzuruntxialdea	08:00etatik 09:00etara 11:00etatik aurrera

### SANTIAGO

HURRENKERA	EREMUA	ORDUA
<b>LEHENA</b>	<input type="checkbox"/> Ibaialdea	08:00etatik aurrera